

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

4/2023 Foru Araua, otsailaren 15ekoa, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Araua aldatzen duena

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko otsailaren 15ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

4/2023 Foru Araua, otsailaren 15ekoa, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Araua aldatzen duena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Mendien arloan Arabako Foru Aldundiak duen eskumen eskusiboarekin bat etorritik, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Araua onetsi zen, lurraldean arlo hori arautzeko oinarritzko tresna gisa.

Bestalde, kontuan hartu behar da Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legean jasotakoa; izan ere, lege horren azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoaren arabera, lege hori oinarritzkoa da, Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutakoaren babesean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezartzen denez, administrazioek esanbidezko ebazpena eman behar dute prozeduretan, gehieneko epea arautuz eta, prozedura bat arautzen duen arauak ebazteko eperik ezartzen ez duenean, epea hiru hilabetekoa izango dela ezarritik.

Hori kontuan hartuta, ez 11/2007 Foru Arauan ez Mendiei buruzko 43/2003 Legean ez da eperik ezartzen zehapen prozedura edo mugaketa prozedura ebazteko; beraz, eperik ez badago, 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.

Mugaketa espedienteak prozedura bermatzaileak dira, eta jendaurreko hainbat informazio aldi dituzte. Hori dela eta, espediente horietako asko iraungitza jo behar dira, izapidetzeak aurreikusitako hiru hilabeteak gainditzen baitituzte.

Arazo hori konpontzeko, beste baso administrazio batzuek epe hori luzatzea erabaki dute, eta 24 hilabeteko epea ezarri dute izapidea ebazteko.

Zehapen espedienteen izapidetzea antzeko egoeran dago, eta are larriagoa da salatuek, aholkulariei jarraituz eta egoera ezagututa, beti ere legearen barruan, prozeduren tramitazioa luzatzen dutelako, eta, hala, iraungitako gero eta espediente gehiago lortzen dituztelako.

Lehenengo artikulua. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua aldatzea, 6. apartatua gehituz

“6. Mugaketa prozedura ebazteko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakiaren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotzen bada dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingo da eta jarduketak artxibatzea erabakiko da.”

Bigarren artikulua. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 70. artikulua aldatzea, 7. apartatua gehituz

7. Zehapen prozeduretan, esanbidezko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura abiarazteko ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Xedapen iragankorra

Foru arau hau indarrean sartu aurretik hasitako espedienteak aurreko araudiaren arabera arautuko dira.

Azken xedapena

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA